

# Ezagutu ZABALA oinez

BILBAO IZAN –IRAILA 2021



ZABALA



**ZABALA**


**Bilbao**

  
izan  
**BILBAO**  
ondarearen sustapena  
promoción del patrimonio

# Jatorria eta kokalekua

Aurretik, Zabalbururekin batera, Mena auzoa izenez ezagutzen zen, Miravillako (Miribilla) meategietatik gertu zegoelako.


Zabala kalea, Zabalgunearen zati gisa, XIX. mendearen amaieran ireki zen. Denborarekin, auzoak Bruno Mauricio de Zabalar, La Platako gobernadore eta Montevideoko sortzaile izan zen durangarrari, eskainitako bide nagusiaren izena hartu zuen.



# Eraikuntza

- Zabala meategien eta trenbidearen artean sortu zen, industrializazio betean, Miravilla mendiaren ekialdeko muinoan. XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran Bilbo Zaharrera iritsi zen migratzaile langileen etorrera masiboa izan zen ia hirigintza-proiektu berri guztien bultzatzaile nagusia. Zabala kalea auzoaren garapenerako arteria nagusi bihurtu zen.
- Industria-auzo gehienak bezala, ingurua modu kaotikoan hazi zen: irteerarik gabeko kaleak eta langile bizitzako kale estu eta apalak. Eraikitzaileek eta arkitektoek ez zuten apaindura handirik aurreikusi etxe berrietarako. Hala ere, Bilboko beste leku batzuetan aurkituko ez ditugun berezitasunak aurki ditzakegu bertan.





# Bilakaera

- Hiru faktore hartu behar dira kontuan 1860tik XX. mendeko 80ko hamarkadara arteko Zabalaren hirigintza eta gizarte garapena ulertzeko, Miravillako meategiak, Bilbo-Tutera trenbidea eta Mena Zaharretxea.
- Auzoa langileen lan-bizitza intentsuari aurre egiteko sortu zen. Biztanle berriei esker, auzoak nortasun nabarmena izan zuen, eta horrek auzoaren bilakaera baldintzatu zuen.
- Etxe txikiak, 40 eta 50 m<sup>2</sup> artekoak, jende-pilaketa, gaixotasunak, kutsadura, lan-prekariatatea... Arazo horiekin borrokatu behar izan zuten Zabalako biztanleek urteetan. Beranduago, XX. mendearen bigarren erdialdeko oparoaldi ekonomikoa iritsi zen, eta auzoa Hiriko hiritarren aisialdi eta dibertsio hornitzaile bihurtu zen.

# Erreferenteak

- Trenbideko etxeak dira Zabalako eraikin multzo adierazgarrietako bat. Asociación General de Empleados y Obreros de Ferrocarriles de España izenekoak eraiki zituen 1922. urtearen hasieran, eta etxe kolektiboz osatutako zazpi multzo dira, 275 etxebizitza guztira; bertako biztanleek lagundu zuten neurri handian auzoaren izaera osatzen.
- Auzoan oraindik ere irauten du bere garaian Bilboko lekurik famatu eta ospetsuenetako bat izan zen baserriaren oroitzapenak: El Amparo jabetxea. 1860an, emakume bat, Felipa Eguileor, establezimendu horretako sukaldearen kargu jarri zen, Bilboko gastronomiaren maila gorenera eramanez.



# Bertako bizitza eta jendea


San Roke bidea



Sortzez Garbiaren Komentua

“El Amparo”

Cantalojas



Trenbide-langileak

ZABALA



“La palanca”



Meatzariak



# BIBLIOGRAFIA





- ALONSO OLEA, EDUARDO J. Bilbao y sus barrios: una mirada desde la historia (Vol. 5) Bidebarrieta Kulturgunea. Bilbao, 2010.
- BILBAO IZAN. Bilbao Izan, 24/01/2014 "La orilla del hierro y la lentejuela / Burdinaren eta lentejuelen ertza".
- CAZORLA CRESPO, JOSE MARIA. 17/11/2011, "El Monasterio de la Concepción, Bilbao y el Obispo D. Mario Iceta".
- ECHEBARRIA Y GRIJELMO: Las Minas de Hierro en la Provincia de Vizcaya. Bilbao, 1900.
- G. ALONSO, ALBERTO. Deia, 05/02/2020 "Un gran parque cubrirá la trinchera ferroviaria a su paso por Zabala".
- GARCÍA DE LA TORRE, BERNARDO I. Bilbao Arquitectura, 19/12/2020, "El Amparo, una casa con mucho sabor. Bilbao arquitectura 046".
- GARCÍA DE LA TORRE, BERNARDO I. Bilbao Arquitectura, 16/02/2020, "Arquitecturas para el cine en Bilbao 1. Bilbao arquitectura."
- GARCÍA DE LA TORRE, BERNARDO I. Bilbao Arquitectura, 19/11/2020, "El Ferrocarril en Bilbao. Una historia de luces y sombras. Bilbao arquitectura 045".
- GARZÓN SAEZ, JOSÉ. Periódico Bilbao, Junio de 2004, pág. 26-27 "Historia del Restaurante el Amparo".
- GONZÁLEZ OLIVER, J. Calles y rincones de Bilbao. Ayuntamiento de Bilbao, 2007.
- IZARZELAIA, ARTURO: Los barrios altos de Bilbao: documentos sobre la historia de Bilbao La Vieja, San Francisco y Las Cortes. Bilbao, 2001.
- LÓPEZ ECHEVARRIETA, ALBERTO. Los Cines de Bilbao. Filmoteca Vasca. Bilbao. 2000.
- MUÑOZ FERNANDEZ, FRANCISCO JAVIER. La arquitectura del tren en Bilbao: Estaciones y viviendas ferroviarias de una metrópoli industrial. VI Congreso de Historia Ferroviaria. 2012.
- VILLANUEVA EDO, A. Los hospitales de epidemias en Bilbao. Gac Med Bilbao, 2004.


# ESKER ONAK

Bilboko Udal Artxiboa / Archivo Municipal de Bilbao  
Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco



# MILA ESKER

Errekaldeberrin egongo gara zure zain urrian!



<https://www.facebook.com/Bilbaolzan/>



<https://www.youtube.com/BilbaoKultura>



<https://www.instagram.com/bilbaokultura/>



<http://bilbaokultura.eus/bilbao-izan>